

## EGUNEROKOA



Negua zen. Amonaren etxean nengoen sutondoan, bero-bero. Tximisten argiek, zeru guztia argitzen zuten. Hamar urtetan gertatutako ekaitz gogorrena zen hura. Ni suaren txinpartei begira nengoen, lasai-lasai. Sukaldetik, amonaren janari usaina zetorren.

Bat-batean, ganbarara igotzeko gogoia etorri zitzaidan. Arropa lodia jantzi, eta bertara igo nintzen. Hotz handia egiten zuen, 10º gehienez. Ganbara zikin-zikina zegoen. Bazter guztietan zeuden kaxak, gauzez beteak. Hauts piloa zegoen, bertara 20 urtean inor igo ez zela zirudien. Armiarma sareak, gelako sabaitik zintzilik zeuden. Iluntasuna zen nabari txoko guztietan, kobazulo bat zirudien. Iskina batean, aitonaren txokoa zegoen, liburuz eta koadernoaz beterik. Bertan pasatzen zituen egunak idazten eta irakurtzen. Liburuak begiratzen hasi nintzen, entretenituko ninduen baten bila. Eguneroko gorri bat ikusi nuen armairuko baztar batean. Segituan sentitu nuen hura irakurtzeko grina. Belusez forratua zegoen, oso zaharra zen. Aitonak, kontu handiz gordea zuen. Baliotsua al zen? Momentu horretan txikitako irudi bat etorri zitzaidan burura: Egun batean aitonaren bila igo nintzen ganbarara. Atea irekitzean, aitona ikusi nuen negarrez, egunerokoa esku artean zuelarik. Ni ere negarrez hasiko banintz? Hala ere, liburu ireki egin nuen. "Maria Galarraga" izan ziren irakurri nituen lehenengo hitzak. Ez nekien nor zen emakume hura, baina nire abizena zuen. Milaka galdera etorri zitzaizkidan burura: "Nor zen?" "Zergatik ez zidaten inoiz berataz hitz egin?" "Zer gertatu zitzaion?" Jakin nuen, galdera guztien erantzunak egunerokoaren barnean zaudela. Irakurtzen hasi nintzen, hizkietan murgilduz...

*"1937ko apirilaren 19a*

*Egoera zaila da, jendea ihesi dabil, kaleetan dena da presa. Jendea aztoraturik dago, mundu guztia beldurrez. Familia guztian daude berri on baten esperoan, baina hauek ez dira iristen. Pixkanaka, euskara itzaltzen ari da. Aita, Madrilera joan da lanera, laster iritsiko da."*



Hau irakurrita egonezinean geratu nintzen, zer ari zen gertatzen? Oraindik ez nekien zein zen. Neska gazte bat zirudien, 15-16 urte bitartekoa gehienez.

*"1937ko apirilaren 21a*

*Gaur eskolan Maria Angeles jo dute, Euskaraz hitz egin duelako. Bere familiari berri txarrak baino ez dizkiete ematen. Lehenengo, aita hil dute, orain berriz, aitona. Aita bi egun atzeratu da. Gainera sukarra daukat.*

*1937ko apirilaren 22a*

*Gaur goizean, telegrama hori bat iritsi da etxera, amak ez dit irakurtzen utzi, baina bera negar zotinka hasi da, eta etxetik alde egin du. Oraindik ez da itzuli. Horrek berri txarrak dakartza. Lolak esan zidan, telegrama horiek berri txarrak zekartzatela. Beldur naiz. Gainera, janaria ez dago soberan, ez horixe, janari nahikoa falta da. Baina honek ez du gaur bukatuko den itxurarik. Gaur, hegazkin militar bat pasa da zerutik.*

*1937ko apirilaren 25a*

*Bihar Gernikara goaz, merkatura. Irrikaz nago! Ignaziok eta nik konbentzitu dugu ama."*


Berehala jakin nuen nor zen, urte horietan, Ignazio... Bai, nire aitonaren arreba izan behar zuen, baina, zergatik ez nuen inoiz berataz ezer entzun?

*"1937ko apirilaren 26a*

*Sukarrak igotzen jarraitzen du, horregatik, etxean geratuko naiz Ignaziorekin, baina ama Gernikara joango da.*

*1937ko apirilaren 27a*

*Gaur esan didate Gernikan bonbardaketa gertatu dela, eskerrak ez ginela joan, baina ama ez da itzuli, eta telegrama hori bat iritsi da etxera, berriz, berri txarrak. Badakit zer dioen eta ez dut ireki nahi. Orain oso ahul nago. Gaur goizean bi guardia zibil etorri dira etxera, aitona eraman dute.*



*Hala ere amonak lagundu egiten dit, saiatzen da, ni alaitzen, baina egoera honetan ezinezkoa da. Ignazio negarrez iristen da egunero etxera, gazteleraz ez dakienez jo egiten dutela esaten du. Badirudi gauzak okerrera doazela.*




*1937ko maiatzaren 3a*

*Atzokoan, irakasle bat etorri zen etxera. Ignaziok gazteleraz hitz egiten ikasten ez badu, eskolatik botako dutela. Gaur goizean medikuarenean egon naiz. Badirudi gaixotasun bat harrapatu dudala eta oso aurreratua dagoela."*

Dena ulertu nuen, aitonak oso gaizki pasatu zuenez, ez zuen nahi guk ezer jakitea, horregatik ez zidan inoiz Mariaz hitz egin.

*"1937ko maiatzaren 5a*

*Gaur goizean zorabiatu egin naiz. Bizitzeko nire denbora guztia joan balitz? Ohartu naiz, bizitza eskolan edo txikitan erakusten digutena baino zailagoa dela. Gurasoak joan zaizkit, aitona ere bai. Zer naiz ni? Momentu honetan ezer ez. Mundu zail batean nago bizirik, denbora laburrez, hiltzeko esperoan. Egunero jendea hiltzen dela entzun dut, segur aski, ni izango naiz hurrengoa. Ignazio, badakit momentu honetan hau irakurtzen ari zarela, eta dagoeneko ni, hilda nagoela. Baina izan gogorra eta segi aurrera, amak, aitak eta nik nahiko genukeen modura. Agur Ignazio, maite zaitut."*



Malkoak isurika zeuden nire masailetatik, egunerokora heldu arte. Negarrez ari nintzen. Nik, munduko izeba gogorrena nuen. Bizitzako momentu zailenak pasa zituen berak. Egunerokoa bere lekura eramatera nindoanean, argazki bat erori

zen barnetik. Bera agertzen zen, Maria, alai, irribarre batekin, hori ikusteak, poztu egin ninduen. Konturatu nintzen, pertsona bakoitza, mundu desberdin bat dela, eta nik, zorte handia nuela mundu honetan jaiotzeagatik.

-Maitea.

Entzun nuen sukaldetik. Amona zen eta afaria prest zegoen.